

RASFF (pentsuak): 2019ko lehen lauhileko laburpena

[DESKARGATU PDF](#)

2019ko lehen lauhileko honetan, animalien elikagaiei buruzko 99 jakinarazpen egin dira. Horietatik 14 alertak izan dira, 56 informazio-jakinarazpenak eta 29 mugan egin diren ukapenak.

Egindako kontrol-motari dagokionez, 34 jakinarazpen Mugako Ikuskapen Postuek (MIP) egin dituzte; 16, berriz, pentsuen ekoizpen-kateko zenbait arlotan egindako kontrol ofizialek; 47, bestalde, industriak berak detektatu ditu autokontrolak; eta 2, azkenik, bezeroen kexek eragin du.

Denbora-tarte honetan arrisku gehienak mikrobiologikoak izan dira (% 69), eta ondoren mikotoxinekin lotutakoak (% 5). Arrisku mikrobiologikoei dagokienez, salmonellak eragin du jakinarazpen gehien (69 jakinarazpenetatik 59).

Salmonella aurkitu den lehengaien artean, arrain-irina, txakurrentzako mastekagarriak eta soja eta koltzatik eratorritako produktuak nabarmendu behar dira.

Txostena: RASFF (pentsuak). 2019ko lehen lauhileko laburpena

ELIKA

. Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxa: 945 122 171 .

berri@elika.eus

Close

Necessary

Always Enabled

